

Esatearen ederra. Agertokitik ikasgelara

Lo bonito del decir. Del escenario al aula

La beauté de la parole. De la scène à la salle de classe

The beauty of speaking. From stage to classroom

MARIN ARTEAGA, Julia

Antzerki itzultzailea eta Komunikazio Tekniketan irakaslea

Noiz jaso: 2016-02-09

Noiz onartu: 2016-04-29

Euskera. 2015, 60, 2. 451-476. Bilbo
ISSN 0210-1564

Artikulu hau ahozketasunaren deskribapen praktiko bat da, hiru zatitan antolatua. Lehenak argitzen du antzerkian nola lan egiten dugun testu idatziak bizia hartu dezan aktorearen ahoan, eta zer garrantzitsua den euskalkiak eta erregistro aniztasuna baliatzea pertsonaiak eraikitzeko orduan. Bigarrenak testu interpretazioaren aplikazioaz dihardu: hamalau urteko eskarmentuaren berri aktoreen formazioan, Donostiako Arte Eszenikoen Tailerlean. Eta hirugarrenak erakutsi nahi du antzerkia tresna paregabea dela ahoskera lantzeko komunikazioaren esparru guztietan, batez ere irakaskuntzan. Gogoeta honen helburua: grabazio ugariaren bitartez ikusaraztea ahoskera landu, ikasi eta irakatsi daitekeela.

Hitz gakoak: antzerkia, testu interpretazioa, prosodia, ahozketasuna, ahots gorako irakurketa, euskalkiak, erregistroak, ahozko arteak, komunikazioa, irakaskuntza.

Este artículo es una descripción práctica de la oralidad, dividida en tres partes. La primera detalla como trabajamos en el teatro para que el texto escrito coga vida por boca del actor, y que importante es el utilizar la variedad de registros y los dialectos a la hora de crear los personajes. La segunda parte gira en torno a la interpretación del texto: catorce años de experiencia en la formación de actores, en el Taller de Artes Escénicas de Donostia. Y la tercera parte quiere mostrar que el teatro es una herramienta sin igual a la hora de trabajar la pronunciación en todos los ámbitos de la comunicación, pero sobre todo en la docencia. El objetivo de esta reflexión: el mostrar a través de muchas grabaciones que la pronunciación se puede trabajar, aprender y enseñar.

Palabras clave: Teatro, interpretación de texto, prosodia, oralidad, lectura en voz alta, dialectos, registros, artes orales, comunicación, docencia.

Cet article est une description pratique de ce qu'est l'oralité et se divise en trois parties. La première partie explique comment on travaille dans le domaine du théâtre pour qu'un texte écrit prenne vie par la bouche de l'acteur et comme il est important d'utiliser la variété des registres et des dialectes lorsque l'on crée des personnages. La seconde partie traite de l'interprétation du texte : quatorze années d'expérience dans la formation des acteurs à l'Atelier des Arts Scéniques de Saint-Sébastien. La troisième enfin veut montrer que le théâtre est un outil sans égal lorsque l'on travaille la prononciation dans tous les domaines de la communication, mais surtout dans l'enseignement. L'objectif de cette réflexion est de montrer, grâce à de nombreux enregistrements, que la prononciation peut se travailler, s'apprendre et s'enseigner.

Mots-clés: théâtre, interprétation du texte, prosodie, oralité, lecture à voix haute, dialectes, registres, arts oraux, communication, enseignement.

A practical description of orality, divided up into three parts. The first clarifies how a written text is brought to life by the actor in the theatre and how important dialect and variety of register are when creating characters. The second deals with applying textual in-

terpretation: the result of fourteen years' experience in training new actors in the Workshop of Performing Arts in Donostia-San Sebastian. And the third attempts to show how drama is an excellent tool for working on oral skills in all spheres, particularly in teaching. The objective of these reflections is to show that pronunciation can be developed, studied and taught by means of many recordings.

Keywords: Theatre, textual interpretation, prosody, orality, reading out loud, Basque dialects, registers, oral arts, communication, teaching.

Ezer baino lehen, zoriondu nahi dut Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordea hamazazpi urteko isilaldi luzea eten eta jardunaldi hau antolatzeagatik: profesional asko gabiltza, komunikazioaren alor guztietan, irizpide eta gidarritza premian.

Eta esker ona agertu nahi diot ni jardunaldi honetan parte hartzera gonbidatu nauelako, gonbit horrek esan nahi baitu bete-betean sinesten duela antzerkiak baduela zer emana eta zer esana ahoskera kontuetan. Eta hori oso pozgarria da.

Hizlarien artean, badirenez auzi teorikoetan nik baino askozaz ekarpen handiagoa egin dezaketen adituak, nik alde praktikotik helduko diot gaiari. Saiatuko naiz erakusten –grabazioen bitartez– ahoskera landu, ikasi eta irakatsi daitekeela. Baina kontu praktikoetan sartu aurretik, kontatuko dizuet nondik datorkidan ahoskeraren pasio hau.

Nire lehen esperientzia antzerkian 1995. urtean izan zen: *Mephisto* obra, Klaus Mann idazlearen nobelan oinarritua eta Pere Planella katalanak zuzendua.

Antzezlan hura ekimen ofiziala izan zen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak babestua Arteszenaren bidez. Geroztik, oso gutxitan taularatu dira halako proiektu anbiziosoak, konpainiek ez baitute gaur egun balibiderik ekoizpen handietarako.

Mephiston, entsegetan hasterako taldeak egina zeukan antzezlanaren euskarazko bertsioa, baina aktoreak eta zuzendaria elkartu zirenean lehen irakurketa egiteko, testua esaten hasi eta ezin. Orduan, deitu eta proposatu zidaten proiektuan parte hartzeko. Bi zeregin nituen: batetik, testua moldatzea, esateko moduan idaztea alegia; eta, bestetik, aktoreei laguntzea testu interpretazioan.

Hogei aktorek parte hartu zuten, mota guztietakoak euskararen ezagutzari eta erabilerari dagokionez. Batzuk erabat erdaldunak. Beste batzuk euskaldun/erdi-euskaldun berriak. Batzuek ikasketa guztiak euskaraz burutu baina arazoak zituzten testua natural esateko. Eta beste batzuek euskalkian hitzun peto-petoak izan arren zalantzak zituzten euskara batuan aritzeko. Gipuzkoarrak eta bizkaitarrak, denetik zegoen han.

Eta tartean bazen Johara Farley izeneko aktore bat, Paristik etorria puta beltzaren pertsonaia egitera. Eta, munduan euskara izeneko hizkuntza bat bazenik ere ez zekien arren, bi eszena oso antzeztu behar zituen euskaraz.

Nire buruhaustek! Nola adierazi aktore haiei nola *kantatzen* dugun euskaldunok? Aldi hartan intuizio hutsak gidatu ninduen, eta lortu genuen –ez dakit oso ondo nola– bertsio sinesgarri bat taularatzea.

Mephisto antzezlana erronka handia izan zen niretzat, itsu-itsuan jardun behar izan bainuen irizpide argien faltan. Baina balio izan zuen pizteko nire barruan komunikazioarekiko sentiberatasuna, bai idatziz bai ahoz.

Harrezkeroztik, berrogeitik gora antzezlanean parte hartu dut, bi zeregin hauek betez: itzultzailearena eta zuzendari laguntzailearena.

– ITZULTZAILE

Itzulpen prozesuan oso kontuan hartzen dut esatezko testu bat sortzen ari naizela, aktore batzuek esan behar baitute eta ikusleek belarriz jaso. Genero berezia da: eskatzen du ahozko hizkeratik oso gertu ibiltzea. Naturaltasuna bilatu behar da eta testuak esan erraza izan behar du.

Lehen fase horretan, saiatzen naiz ahalik eta fidelena izaten jatorrizko testuarekin, eta batuan idatzi ohi dut lehen bertsioa.

– ZUZENDARI LAGUNTZAILE

Bi lan ildo:

o TESTUAREN SEGIMENDUA

Idazle/itzultzailearen zeregina ez da amaitzen etxeko epelean egiten duen lanarekin. Bertsio hori zirriborro bat baino ez da.

Gero, entseguetan, unibertso bat sortu behar da paperetik abiatuta. Pertsonaiak gorputzu ahala, haien intentzioak eta gorputz inpultsoak finkatuz eta egoerak eta harremanak argituz doazen neurrian, pertsonaiek berek esaten digute zenbateraino zaizkien balekoak testuko esaldiak, eta baita ere zer erregistrotan hitz egin behar duten.

Eta horren arabera ibiltzen naiz bertsioa berridazten behin eta berri, testua egokitzen, eszenan sortzen diren jolas eta proposamen berrietara.

Egokitze fase horretan, albo batera utzi ohi dut jatorrizko testua, hor euskarak agintzen du.

o TESTU INTERPRETAZIOA

Esatea bera zaindu. Aktoreekin batera lan egin testua ahalik eta modurik natural eta organikoenean interpreta dezaten.

Teatroa arte bat da eta osagai asko ditu: pertsonaien eraikitzea, intenzioak, eszenografia, atrezzoak, jantziak, argiak eta abar. Hitza ere osagai horietako bat da, eta uste dut merezi duela prozesu osoan mimatzea, beste elementu guztiak mimatzen diren bezala.

Bi arlotan lan egin behar da: idatzizkoan eta testuaren ahots gorako interpretazioan. Bi langintza horiek ezin dira utzi zuzendariaren eta aktoreen esku.

Ikusten duzueenez, antzerkia niretzat bizibidea da, baina batez ere laborategia eta inspirazio iturri agorrezina.

Donostiako Arte Eszenikoen Tailerra

Irakaskuntza arloan, 2001ean hasi nintzen eskolak ematen Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean. Nire zeregina: hiru ikasturteko programa bat diseinatzea. Helburua: aktoregaiak formatzea taula gainean euskaraz lan egiteko.

Abiapuntua: bilatzea euskaraz zer zegoen argitaraturik testu idatzien ahoskeraren gainean. Eta topo egin nuen Euskaltzaindiaren ahoskera zainduaren araukin eta azentuaren inguruko ikerlan batzuekin; hortik aurrera, ezer gutxi.

Garai hartan Itzulidatz lantaldean nenbilen, eta Idazkuntzaren inguruko formazioa ematen ari ginen Bilboko Ulibarri euskaltegiko irakasleei. Eta Patxi Agirregomezkorta euskaltegiko zuzendariarekin batera *Esatearen Ederra* izeneko ikerlan proiektu bat aurkeztu genuen Jaurlaritzan. Diru laguntza

txiki bat eman ziguten, eta 2002-2004 ikasturteetan jardun genuen, bi esperimentazio talde hartuta (bat AETn eta bestea Ulibarrin), literatur eta teatro testuak landuz, euskara naturala deskodetzen eta oinarritzko teoria pixka bat asmatzen.

Aukera hau baliatu nahi dut eskerrak emateko abentura hartan lagundu zidaten bidaide prestuei: Mila Garmendia (Itzulidatzekoa), Elu Garate (Ulibarriko irakaslea) eta Egoitz Lasa (aktorea, AETn formatua).

Handik aurrera, beste hamar urte egin ditut Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean, *Esatearen Ederra* metodoa hezurramitzen eta eskolako hiru ikasturteak programatzen. Lehen sei urteetan bakarrik, nik ematen bainituen eskolak hiru mailetan; baina 2010ean ekipoa osatu nuen EATn bertan ikasle ibilitako bi aktoreekin: Xabi Ormazabal eta Kepa Errasti.

Helburu honek gidatzen du gure jarduna: formazio zikloa amaitzen duenean, euskal aktore batek gai izan behar du euskara batuan zein bere euskalkian jarduteko, eta baita ere eszenaren egoerak edo pertsonaien arteko harremanak eskatzen duen edozein euskalki eta erregistrotan.

Grabazioen bitartez¹, saiatuko naiz kontatzen, pausoz pauso, nola lortzen dugun hori.

Esatearen ederra: https://www.youtube.com/watch?v=li8Pl_npO4Q

Lehen maila

Lehen eskola egunean, ikasleei testu bana eman eta, nor bere kabuz prestatu ondoren, grabatu egiten ditugu guztiak, abiapuntuaz jabetzeko. Orain entzungo duguna ikasle argentinar batena da. Iritsi berria zen Argentinan.

¹ Nire eskerrik beroenak grabazioetan, aldez edo moldez, parte hartu duzen guztioi: Kepa Errasti, Ana Perez, Teresa Calo, Belen Cruz, Vanesa Diaz, Saioa Royo, Zigor Goikoetxea, Karle Beristain, Urki Muguruza, Nagore Arruti, Laida Pineiro, Amaia Ruiz, Betzaida Urtaza, Iñigo Antsorregi, Andrea Lopez, Asier Zabaleta, Juan Mari Zunzunegi, Erika Olaizola, Ane Garcia, Pili Lasarte, Gorka Romano, Zuriñe Otxoa, Goizane Cebrian, Lorea Carro, Iker Herrero, Iker Hormaetxe, Donibane Azkarate eta Beñat Mendizabal.

tinatik Espainian Arte Eszenikoak ikasteko asmotan, eta Donostian *erori* zen. Euskara existitzen zenik ere ez zekien hark ere; beraz, zero mailako ikasle birjin-birjina.

1	HASI: 00:08 / AMAITU: 01:29	IRAUPENA 01:21
---	-----------------------------	----------------

Bernardo Atxaga: Groenlandiako lezioa
Erein, 1998

Ero zerrenda

Anttonio, nekazaria, gaztetan txirrindulari bezala ibili eta hainbat sari irabazitakoa, eta hogeita hamar urte inguru zituenean, «nerbioek burua jaso», berak esaten zuen bezala, eta hizketan etengabe aritzeko joera hartu zuena. Aldian behin, norbaitek emandako hizpideari lotu eta orduak eta orduak pasatzen zituena isildu gabe.

Zoriontsu edo erdi-zoriontsu bizi izan zen harik eta bere senitartekoek, herriko sendagilearen gomendioz, elektro-shockez baliatzen zen tratamendu psikiatrikoa pasarazi zioten arte.

(...)

Oso adibide ona da konturatzeko buru erdaldun batek nola prozesatzen dituen hizkuntza arrotz batean idatzitako hitzak: banan-banan eta berak ezagutzen duen doinuan txertatuta. Niri esperientziak irakatsi dit hizkuntza berri bat ikasteko askoz efikazagoa dela hitzak melodia batean sartuta irakastea eta ez banan-banan doinua asmatzea ikaslearen esku utzita.

Bigarren maila

Hurrengo grabazioa bideo bat izango da: aurreko audioan entzun dugun ikasle argentinarra bera, bigarren mailaren amaieran.

2	HASI 01:30 / AMAITU 02:58	IRAUPENA 01:28
---	---------------------------	----------------

Enkarni Genua
Desclée de Brouwer, 1998

Xabier Etxaniz Erle, *Euskal Haur Literaturaren Antologia*
Elkar, 2005

Ku-ku ku-ku aitonaren erlojua

Gurasoek atea itxi bezain pronto Mikelek liburua, bloka eta arkatza baztertu zituen eta erlojuari begira jarri zen.

Halako batean, zazpiak eta hamar zirela... kris... kras... soinu bat entzun zuen. Mikel ikaratuta gortinaren atzetik ezkutatu zen. Bere belaunak dingilin-dangalan bata bestearen kontra zebiltzan. Kris... kras... berriro soinu hura. Lapurrak etxean ote? Mikelek ez zekien zer egin, edo hor jarraitu edo bere plana bertan behera utzi eta tximista bezain azkar kalera atera, kukuaren misterioa argitu gabe utziaz. Baina alde batetik beldurrarengatik mugitu ezinik zegoelako eta beste aldetik bere jakin-mina oso haundia zelako, hor, gortinaren atzetik geratzea erabaki zuen.

Kris... kras... Berriro ere soinu hura entzun zen eta bat-batean erlojuaren atea ireki zen eta Mikelen begi-bistan egurrezko kukua ateratzen hasi zen.

(...)

Segidan, ikasle euskaldun baten lana ikusiko dugu, hau ere bigarren mailaren amaieran egina.

3	HASI 02:59 / AMAITU 05:08	IRAUPENA 02:09
---	---------------------------	----------------

Mariasun Landa, *Galtzerdi suizida*
ELKARLANEAN, 2001

Galtzerdi suizida

Oin puntan lehen zuloa agertu bezain laster, erabaki bat hartu behar nuela pentsatu nuen. Bestela, berehala botako ninduten zaborretara! Horregatik bota nuen neure burua lehengo batean laugarren solairutik kalera. Eta hara non, beheko balkoian zintzilik geratu nintzen!

Baina balkoian geranio gorri batzuk zeuden, eta berehala jakin nahi izan zuten zenbat denbora geratu behar nuen han, zer asmo nituen. Haien iritziz, euren edertasuna kaltetzen nuen, eta biziki amorratzen zituen ni han egoteak, haiei begira-begira...

–Ez kezkatu! –lasaitu nituen berehala–. Galtzerdi koitadu bat besterik ez naiz, oso bizi laburra geratzen zait. Ez zaituztet luze gogaituko, benetan!

Nire erantzunak ez zituen trankildu geranio gorri haiek, horrelako egoeretan galtzerdi guztiek gauza bera esaten genuela esan zidaten gupidarik gabe. Ezagutzen zituztela, bai, kasu ugari, oso gustura geratu zirenak denbora luzean balkoi hartan. Eta inor ez zela sekula santan haien bila etorri.

Eta nik, berriz, ezetz eta ezetz, hori ez zela nire kasua izango. Zin egiten niela nire bideari segituko niola, ez nuela hain jauzi arriskutsua eman txorimalo bat bezala zintzilik geratzeko.

(...)

Emaizta horietara iristeko, hiru urrats ematen ditugu.

- 1) Irakurketa neutroa. Esan daiteke solfeoa ikastearen antzekoa dela. Testua partitura bat balitz bezala tratatzen dugu.
- 2) Irakurketa dramatizatua. Testua okupatu: hitzak edukiz eta esanahiz bete, intentzioak eta erritmoa landu, testu zatiak bereizi, isiluneak erabaki, hitz klabeak markatu.
- 3) Testua buruz ikasi. Helburua: naturaltasuna lortzea agertoki gainean; alegia, testua antzeztea aktorea hizketa librean arituko balitz bezala.

Hor dimentsio aldaketa bat gertatzen da: pasatzen gara 2Dtik 3Dra, hau da, pasatzen gara paper hutsetik hezur-haragizko izakiak gorpuztera eta unibertso jakin bat sortzera agertoki gainean.

Horretarako, aktorearen inplikazio osoa behar da. Fase honetan antzezleak lotu beharra dauka paperaren gainean eraiki duen partitura hori beste mota bateko partiturekin: emozio partiturekin, mugimendu fisikoen partiturekin, buruan sortu dituen irudien partiturekin...

Hasierako hiru pauso horietan batuan lan egiten dugu. Hortik aurrera hasi gaitzke hizkuntzarekin ere jolas egiten. Une aproposa da egokitasunari kasu egin eta laugarren fasean sartzeko.

- 4) Ikaslea trebatu euskalkien eta erregistroen erabileran.

Bigarren mailako ariketetan nor bere euskalkian aritzeko modua egi-
ten dugu.

Bi adibide entzun/ikusiko ditugu segidan: lehena Oiartzungo hizkeran egindako audio bat; eta bigarrena bideo bat, Iurreta aldeko berbamoldean. Biak erregistro informalean.

4	HASI 05:11 / AMAITU 06:42	IRAUPENA 01:31
---	---------------------------	----------------

Oiartzungo Manuel Lekuonak 1926an komunikatua.

El mundo en la mente popular vasca. Tomo II (Creencias, cuentos y leyendas)
Jose Miguel de Barandiaran y colaboradores. Edit. Auñamendi. 1961, Zarautz

Piztiyun gerra

Bein batin sorun belar jaten ai zela kakalardua ankapin artu izandu men-tzun zaldiyak eo kamelluk eo olako beste azinda aundi batek.

«Ai! Ai! Ilko nakela!... kentzak ank´ori ortik!» –eju itten emen-tziyon kakalarduk azindari, ta azindak kasoik ez.

«Bai?...» –san emen-zun kakalarduk; eta ankapetik tea zenin, joten da, ta azeiyatik bettiko pixtiyo guziyak billu ta azeiyatik gottiko guziyai gerra deklaatu men-tziyoten.

Juntatu men-tzin, ba, aundiyak mendi batin ta ttikiyak bestin, alkarrei beika, aurkez aurke, ta aundiyak azeiya biali men-tzuten ixpi, kontrayuk zenbat-tsu ta nolakuk zin ikustea. Jon emen-tzen, ba, gue axeiyoi ta... ikusi ute ttikiyak!... enperraten zizka erli eta eltxuk ayeka guzitatik, eta... ark eman-tzittun saltuk noski berriz lengo lekura! Auntzakun isatsa ttennte baldin ba´zun e. Bueltakun eerki bettittua men-tzaman!...

–Ta? –galdetu men-tziyoten beretakuk– Ta?...

–Mutillak! Tikiyak; biño bai pixkorrak!

5	HASI 06:44 / AMAITU 07:46	IRAUPENA 01:02
---	---------------------------	----------------

Joseba Sarrionandia

Sarri gure artean

BBK: Bihotz Bakartien Kluba

Kiromantzidxa

(...)

Beittu, eingu sure bisimorue,
 Aber:
 Ensegida esangotzut.
 Dana lanbrotute ikustotpañã
 Estakipa estakipa...
 Au etxate bape gustetan eee...
 Or tiro artien saus
 Itzelezko miñekin ikusten saittut
 Ortxe, urrin orretan,
 Gusteu bapez
 Ta bestior, kartzelako soruen esaus ba?!
 Setan sabix ba gisajuori?

(...)

Orraikiño, nungotarra sara baña...
 Ara ba,... karo!... Esara ba euskaldune!
 Euskaldun jaidxo eskero
 Esta arritzekue gero, suerte eskasa bisitzie

Euskaldune saaaratarra ixetie,
 Indidxue ixetie
 Ero baltza ixetielakue da.
 Eneuke egon gure seure kolkuen.

(...)

Hirugarren maila

Arte Dramatikoen ikasketei amaiera emateko, antzezlan bat taularatu ohi dugu, euskaraz eta gaztelaniaz.

Aurrena, gaztelaniazko muntaian hasten dira ikasleak, zuzendaria normalean erdalduna izaten baita.

Euskarazkoaren abiapuntua batuan idatzitako testua izaten da. Gero, obra altxatzen ari garela, iristen da momentu bat non pertsonaiak berak eta joko eszenikoak hasten diren esaten pertsonaiek nola hitz behar duten: batuan edo euskalkian, erregistro formalean edo informalean.

Hiru adibide ekarri dizkizuet.

Lehena Ana Perezek zuzendua: *Desorekak*, Carlos Sarrió.

Obra osoa zoroetxe batean gertatzen da, eta batuan baino egokiagoa iruditu zitzaidan aktoreek nork bere euskalkian jardutea. Eszena honetan, bi aktore ikusiko ditugu: lehena Arbizukoa, eta bigarrena mutrikuarra.

6.1	HASI 07:48 / AMAITU 09:12	IRAUPENA 01:24
-----	---------------------------	----------------

Carlos Sarrió, *Trastomos*
Itzultzailea: Julia Marin

Desorekak

6. eszena

PILULEZ, KAFE MAKINEZ ETA DOSTOIEVSKIZ

NAGORE (Arbizu)

(...)

Bakit ze en nehi duzun nekin:

pilulekin denez-denez lelotu ta bela-bela buketu.

Beya ni e nau prest.

Ez neiz hirugarren pixukoi bezela,

ordubek eta ordubek emate ttu kafe makinai beira.

Eztakit ze arraio ikusten dion urdanga zikin horrek,

ta ez esan bortitza neizela,

nola detteke ordubek eta ordubek ematia kafe makina puta

beti beira.

Ez esan ni neizela babu horrek be onetik atetzen duben

bakarra,

zuk eztuzu entzuten bestiek ze esate dubien.

Beya, karo, gio kikildu eten dia denak.

Arrazoia dakazu, ez nuben kafe makina txikitu ber.

Beya artabu horrek ne onetik atutzen nau!
 Ulertzen dezu?
 Babu horrek etsi en du,
 eztu be buba aguantatzen ta amore emate du.
 Ta hoi ezi a ein, hoi errenditzia delakoz.
 Ta, hola, gutxiyen espia zunien, itzuli ezinda gelditzen za,
 oskol bihurtuba, oskol hustuba.

6.2	HASI 09:13 / AMAITU 11:13
-----	---------------------------

IRAUPENA 02:00

LAIDA (Mutriku)

(...)

Txotxola horrek sutu eitten nau,
 eta miña jartzen zat hemen buruan,
 ta txikitzen det kafe makiñia ta bihar dan dana,
 ta geo primeran geatzen nai, gustoa!
 Zure pilula puta horrekin baño askoz e hobeto.

Total! Zuri bost!

Zuk lelotu ein nahi naizu, pattal-pattal laga, zimel-zimel, letxuga bat bezela.
 Ta hori eitteko igual merkio da kafe makiñia zuk eman nahi dizkiazun pilula
 horrek baño.

(...)

Baña zu tematuta zoz dirua laborategikuai ematen,
 nahixo dezu sosak pilulak erosten gastau eta ez kafe makiñetan. Zuek, medi-
 kuok, laborategikuei alua jaten emate zue egun osua, farmazilariai alua jan
 da jan ibiltze zeate, ta hola zabizte gero.

Ez, ez no urduri.

Baña beti lelo berdiñakin gabilz,
 lasai eon bihar detela, ta lasai eon bihar detela.
 Ba, ez no lasai, ta zuek zeate errudunak;
 zuek, eta zuen bata zurixak, ta zuen arpei gelduak.
 Eztezue tutik entenitzen.

(...)

Bigarren adibidea: *Beldurra* antzezlan, Teresa Calo idatzi eta zuzendua.

Eszena honetan herri bateko plaza irudikatu nahi zen espazio eszenikoan. Eta erabaki nuen, sinesgarritasuna emateko, polita izango zela herri jakin batean kokatzea, eta Aretxabaletara eraman genuen. Pertsonaiek hango hizkeran berba egiten dute, baina aktoreak ez dira bertakoak. Lau dira: lehena tolosarra, bigarrena Legorretakoa, hirugarrena azpeitiarra eta azkena ermuarra.

7.1	HASI 11:14
-----	------------

Teresa Calo, *Miedos*
 Itzultzailea: Julia Marin
 Aretxabaletako aholkularia: Kepa Errasti

Beldurra

Eszenatokia ilun dagoela, lo kanta bat entzuten da. Argia piztean, banku bat ikusten dugu eszenatokiaren erdian, eta bi emakume, ume bana daramatenak bi gurditxotan. Berriketan datoz; bankuan esertzen dira.

(...)

AMR.- Hiri eztun bilddurrik emuten edozein momentutan hil leikela jakitiek?

BET.- Ez. Niri drogetan hastiek emuten justen bilddurre.

AMR.- Hain gazte?

BET.- Ez, emakumie, haundiketan denien.

AMR.- A, bueno, asko falta jakon ondion haundixe izeteko...

BET.- Denporie aguro pasetan don, guapa, eta notiziak ikusitte... Oin mahiru urtekin hasten dittun alkohola, sexue eta drogak probetan, guriek haundiketan dienerako, igual hasiko ittun zortzi edo beratzikin.

AMR.- Haiñ aguro?

BET.- Ize leike. Eta esang´uzten zela preparau bih´oten nik alabie horretarako, sekula be etxonat erre-ta porro triste bat.

AMR.- Ba, igual, badon garaixe hasteko.

BET.- Porroak erreten?

AMR.- Geure burue preparentan. Irakurten, kursilluek eitten...

BET.- Noix? Umiekin pasetan jonat-eta egun osue, edo lanien. Eta hik, urgentzietan...

AMR.- Egixe. Bueno, hirie behintzat neskie don.
 BET.- Eta ze?
 AMR.- Ba, erraxaue dala sexuaz berba eittie mutil bati baino.
 BET.- Berba ein deixola bere aittek.
 AMR.- Hori, hori, urgentzietara neu faten non-da beti.

7.2 AMAITU 14:46

IRAUPENA 03:34

INI.- Entzuten dittuzu?
 ANDREA.- Zoratute daz.
 INI.- Ba, ni kokoteraino. Nik paino negar gehixau eitten dau-ta, pentsaizu.
 ANDREA.- Eta zu zeaittik zaz beti negarrez?
 INI.- Ez dakitt. Batzutan aspertu itten naz.
 ANDREA.- Aspertu? Gauza mordo bat daukou-eta ikasteko. Ni lanien nabil beti.
 INI.- Ama gainien eukiko bazeu egun osuen temperaturie hartzen, edo ispilu bat jarten sudur aurrien ikusteko arnasa hartzen dozun, edo gorpuz osue begiraketan bost minutuen behin...
 ANDREA.- Bufff! Hori da itolarrixe. Eta zeaittik ez dutzezu txize itten zure gauzatxo horrekin?
 INI.- Behin ein nutzen, baina negarrez hasi eta kontau tzen aitei mespresau eitten nauela.
 ANDREA.- Zelako astune, ez?
 INI.- Zu, zuri ez dutzu bilddurik emuten jaustiek?
 ANDREA.- Nundik?
 INI.- Karrotxotik, kunatik, aman besuetatik.
 ANDREA.- Horreik die horreik okurrentziak.
 INI.- Ja. Eta ze gur´ozu ittie?
 ANDREA.- Niri bilddurre emuten duzt edozein egunetan ez ote nauen itto-ko. Ze besarkatzen nauenien, jata birrinddute ixten nau.
 INI.- Asko maitte zaittuelako.
 ANDREA.- Asko. Zuriek ez?
 INI.- Bai, baina... ez duzt eze be kontajiau gure... Eta, hori.
 (...)

Hirugarren mailako antzezlanen hirugarren adibidea Anton Txekhoven ipuin bat da, Belen Cruzek zuzendua: *Funtzionario baten heriotza*.

Ipuin osoa ikusi nahi izanez gero: https://www.youtube.com/watch?v=-gA_KjWMuGdU

Txerviakov, ipuinaren protagonista, funtzionario xume bat da. Operan, jeneralarekin topo egiten duenean, batu ezin formalagoan hitz egiten dio (berorika, «γ» ahoskatuz), demostratzeko nagusiari bera ere badela nor. Baina etxean, emaztearekin, Goierriko hizkeran egiten du. Erregistroen arteko kontraste hori oso ederra da pertsonaiaren barne gatazka adierazteko.

8	HASI 14:47 / AMAITU 19:02	IRAUPENA 04:15
---	---------------------------	----------------

Anton Txekhov, *Nasdrovia, Txekhov!*
Itzultzaileak: Ritxi Lizartza eta Julia Marin

Funtzionario baten heriotza

Txerviakov: (*Jeneralari sorbaldan kolpea emanetz*) Gabon, jeneral jauna.

Jenerala: (*Indiferentziaz*) Zer gertatzen da?

Txerviakov: Berori agurtu nahi nuen. Gabon.

Jenerala: O, bai, bai, gabon. (*Berriz ere berera*)

Txerviakov: (*Bide beretik*) Barkatu, jeneral jauna. Txerviakov naiz... Ivan Ilitx... Ohore handia da niretzat, jauna. Bulegoan dagoen erretratuagatik eza-gutu dut bere gorentasuna.

Jenerala: (*Hotz*) Urte askotarako.

Txerviakov: Nik ere Parke Publikoetako Ministerioan lan egiten dut... Alegia, berorretzat, jauna, bere gorentasuna baita Ministroa, Parke Publikoetako Ministerioaren funtzionario gorena... Berorren baimenarekin: Sailburuaren Laguntzaila izendatu naute, Zuhaitz eta Zuhaitzen Departamentuan.

Jenerala: A, bai... Lan bikaina. Zuhaitz bikainak eta zuhaixka bikainak... Segi, segi horrela.

(*Txerviakov zoriontsu ageri da. Berriz ere joko du jeneral jaunarengana*)

Txerviakov: Nire emazteak pozarren agurtuko zuen berori, jeneral jauna. Eta baita berorren emaztea ere.

Emaztea: Atsegina izango zen.

Jenerala: Bai horixe.

Txerviakov: Hau da bere eserlekua. Baina ez dago ondo.

Emaztea: Butaka?

Txekhov: Honen emaztea.

Emaztea: A, jakina ba, ze tuntuna naizen!

Txerriakov: Baina berorren emazteak butaka aipatu duenez... hautsita dago.

Emaztea: Hara!

Jenerala: Errespetu pixka bat artistei.

(*Kontzertua hasten da. Adi entzuten dute pieza*)

(...)

Txekhov: (*Konstantin aldera doa. Hau idazten ari da*) Txerriakov pozarren zegoen. Bostekoa eman zion jeneralari. Haren emaztea ezagutu zuen, eta irribarre ere egin zioten. Edozein egunetan, jeneralak afaltzera gonbidatuko zituen... baina orduan, ezustean, urakan indartsu baten indarraz, Txerriakovek buruaz atzerantz egin eta... (*Butakara bueltatzen da*)

Txerriakov: Aaaaaattttttxtxtxtxiiiiiiissss!! (*Sekulako doministikua jeneralaren garondora*) O, jainko maitea! Sentitzen dut, gorentasuna. Izugarri sentitzen dut.

Jenerala: (*Garondoa zapi batez garbituz*) Ez kezkatu, ez da ezer izan.

Txerriakov: (*Zapia atera eta jeneralaren garondoa garbitzen du*) Izugarria izan da! Barkaezina. Utzi garbitzen, mesedez.

Jenerala: Uztazu. Ez da ezer, benetan.

Txerriakov: Ziprizez bete dut berori eta... Hau nazka! Guztiz lotsatuta nago! Istripua izan da, ez egin dudarik.

Jenerala: Ez dut batere dudarik. Eta orain, ixo.

Txerriakov: Ustekabeen harrapatu nau, benetan. Konturatu naizenerako, sudurretik kanpora neukan dena.

Emaztea: Txissstt!!!

Txerriakov: Barkatu, barkatu.. (*Berriz ere butakan egokituz, urduri*) Hautsa izan da. Hainbeste hauts pilatzen da antzokietan... Ez nago gaixorik, benetan. Berorrek ez dauka kezkatu beharrik.

Jenerala: Baina isilduko al zara behingoz?!

Emaztea: Txissstt!!!!

(...)

(*Txerriakoven etxean, haren emaztea tea eta gailetak hartzen ari da. Txerriakovek bufanda eta eskularruak erazten ditu*)

Txerriakov: Lanetik botako naue... o mailaz jatxi... Orbelak eta Adaxkak Departamentua bialduko naue...

Emakumea: Tira, Ivan...

Txerriakov: Ze ingo et negun? Zetan aituko naiz udan? Nereak in du! Akabo!

Emakumea: Doministiku txiki bat besteik ezta izan. Seguru eztezula fede txarrez in.

Txerriakov: Ezta nahita re.

Emakumea: Jeneralak aztuta izango u.

Txerriakov: Zuk uste?

Emakumea: Ez, egia esan, ez. Animoa emateko ai nitzen. Nik enuke aztuko, eta minixtro batek gutxio...

Txerriakov: Igual... erregalo bat bialdu ezkeo...

Emakumea: Bai!

Txerriakov: Pañolu pakete bat.

Emakumea: Pañoluk?

Txerriakov: Bai, bee izena brodautu daukenak...

Emakumea: Aztea da gauza.

Txerriakov: Kulpea zurea da, zuk kutsau diazu katarroa.

Emakumea: Nik eztiot sekula doministiku in inoi. Sekula ez.

Txerriakov: Nik bai, askotan; baina Minixtro bati... Haengana jun eta bar-kamena eskau behar diot. (*Eskularruak eta bufanda janzten ditu*)

Emakumea: Itxoizazu, gizona, igual aztuta izango u.

Txerriakov: Itxoitea kalteako izan leike. Jun in behar det.

(...)

AET esperimentuaren emaitzak

Lehen esan dudanez, eskola uzten duenean, aktorea gai da pertsonaiak eta egoerak eskatzen duten erregistroan lan egiteko agertoki gainean: euskara batuan, bere euskalkian zein beste edozein euskalkitan; hizkera landuan eta landugabea.

Baina, bide batez, lortzen dira ere bestelako helburu batzuk hemen aipatzea merezi dutenak.

Zero mailatik abiatu den ikasleak testuak buruz ikasi eta antzeztearen poderioz, hitzak doinuan txertatuta barnerraten ditu, emozio jakin batekin lotuta, gorputzean grabatzen zaizkio. Eta gutxien espero duzunean, tabernan gaudela esaterako, zapla botako dizu, natural-natural, esaldi oso bat

egoerara primeran datorrena. Aktore mordoxka bat ezagutzen dut horrela euskaldundu direnak.

Ikasketa guztiak D ereduan egin eta hitz bat esateko gai ez zela iritsi zena-
rentzat (ez pentsa gutxi direnik horrelakoak), aukera paregabea da sentitzeko
euskarak ere balio duela komunikatu eta dibertitzeko. Hizkuntzarekiko harre-
mana aldatu egiten zaie, maitemindu-edo egiten dira; eta, hirugarren mailako
muntaia egiten dugunean, askok esaten dute hobeto pasatzen dutela euska-
razko bertsioa egiten gaztelaniazkoa baino. Gainera, testu ederrekin lan egitea-
ren ondorioz, haietako asko literaturara hurbiltzen dira eta irakurzale bihurtu.

Sena daukan euskaldun osoari, berriz, lan honek aukera ematen dio pa-
perezko hitz katea lotzeko bere *kantatzeko* modu naturalarekin. Eta, bide
batez, bakeak egiteko euskalkiarekin (prestigio kontuak). Ez dakizue zenbat
aldiz entzun izan dudan aktoreen ahotik «baina hori ez dago gaizki?», pro-
posatu diodanean baten bati euskara batuan nekez erabiltzen den hitzen bat
jartzeko testuan, *kokolo* esate baterako, adibideren bat aipatzearren.

Irakaskuntza

Antzerki kontuetatik aparte ere maiz egokitu zait ahoskeraren inguruko
ikastaroak ematea hainbat komunikazio esparrutako profesionali: akto-
reak, bikoiztaileak, esatariak, aurkezleak, kazetariak, teknikariak, funtzio-
narioak, enpresariak, politikariak, euskaltegi irakasleak, maisu-maistrak...

Ikastaro hasieran, galdera bera egiten diet ikasleei: «Zuek agertokian, mi-
krofono edo kamera aurrean, jende aurrean testu bat irakurri/interpretatu
behar duzuenen, zer irizpide erabiltzen dituzue?» Eta erantzun bera jasotzen
dut beti: «Sena, intuizioa!» Sena eta intuizioa oso lagun onak dira edozein
arlotako profesionalarentzat, ez dago horretan batere dudarik; baina lan tres-
na batzuk eskainiz gero, askoz hobeto burutuko lukete beren lana; batez ere,
sena galdurik dutenek edo haren aztarnarik sekula izan ez dutenek.

Jardunaldi honetara, batez ere, irakaskuntzako eragileak etorri zaretenez,
esparru horretan egindako lanetara mugatu eta kontatuko dizuet zer egoera
topatu dudan ikastola eta euskaltegietan.

Ahoskera, oro har, ez da berariaz lantzen, eskolako jardun ia guztia idaziaren gainean baitute eraikia. Ez da espazio bat bilatzen prosodia irakasteko: irakasleak berak ere irizpide faltan dabilta testu bat ahots gora irakurtzeko orduan.

Mintzamina jorratzen dutenean, normalean, ikasleari gai bat eman eta eskatzen zaio haren gainean jarduteko denbora jakin batean. Eta uste dut ahoskeraren azken helburuak horixe izan behar duela: ikaslea gauza izatea jendaurrean hitz egiteko gai bati buruz. Baina kontziente izan behar dugu, horrela jokaturik, irakasleak bi egitegori aurre egin behar izaten diela aldi berean: zer esana bilatu behar du, baina baita nola esan ere. Edukia eta forma, biak zaindu behar ditu: zeregin gehiegizkoa hizkuntza menderatzen ez duen pertsona batentzat.

Helburu horretara iristeko prozesu luzea burutu behar da: ibilbide bat diseinatu eta urratsez urrats esperimentatu. Nire proposamena da, errealitateetik abiatuta (idatzitik, alegia), zubiak eraikitzea paperaren eta ahoskoaren artean, eta horretarako zer hoberik ahots gorako irakurketarekin hastea baino. Ibilbidearen lehen pausoa da. Fase honetan oso garrantzitsua da testu onekin lan egitea, irakasleak aukera izan dezan, hitz eta mezu egokiak asmatzen ibili gabe, paperari ahotsa jartzeko, hitz ederrak barru-barruan sentitu eta grabatzeko; haren lan bakarra testua musika bihurtzea da. Eta behin hizkuntzaren doinuaz (formaz) jabetuta, hasi gaitzke oratoriari dagozkion bestelako lanetan.

Ikastaroetara itzuliz, modulu laburrak izaten direnez, hogeita hamar bat ordukoak, ez dugu astirik izaten askorik sakontzeko. Metodoaren lehen urratsetan gelditzen gara: irakurketa dramatizatuan gehienbat, nahiz eta testu labur batzuk ere buruz ikasita antzezten ditugun. Ikastaldiaren amaieran irakaslea gai da testua natural irakurri eta pixka bat interpretatzeko.

Besterik da irakurketan trebatu den irakasleak zer aplikazio ematen dion ikasitakoari; plangintza baten faltan, norberaren esku gelditzen baita nola jokatu erabakitzea. Denetik ikusi dut, nortasunaren eta segurtasunaren arabera. Batzuk lehen egunetik beretik hasten dira gaia kontuan hartzen ikasleekin ari direnean, ikastola eta euskaltegi batzuetan hasita daude gai hau integratzen beren hezkuntza programan. Baina badira ere prozesua forma-

zioarekin amaitutzat ematen duten irakasleak, inolako aplikaziorik egin gabe.

Segidan bideo grabazio batzuk ikusiko ditugu, euskaltegi irakasleekin eta maisu-maistrekin prestatutakoak.

9	HASI 19:05 / AMAITU 20:33	IRAUPENA 01:28
---	---------------------------	----------------

Pirritx eta Porrotx, 2006

Maite zaitut

Koloretako ametsak
esna nagoenean
eta ezin loak hartu
gaua iristen denean.

Saltoka hasita hegan
egiteko gogoa,
nire bihotza taupaka
aire ertzera doa.

Elkarrekin hankaz gora
buruz behera jartzean,
tunelean sartu eta
irrintzika hastean,
bitxiloreekin pultsera
egin dizudanean,
begietara begira
hauxe nahi dizut esan:

Maite zaitut,
maite-maite zaitut;
pila, pila, pila patata tortilla!
Maite zaitut. Maite-maite zaitut,
ilargiraino eta buelta maite zaitut

Begietako dirdira,
irribarrea ahoan,

ezin ditut ezkutatu
 zu ikusterakoan;
 hanka eta eskuetan,
 gorputzean, dardara;
 nire bihotza taupaka
 aire ertzero doa.
 Elkarrekin ortzadarra
 margotu dugunean,
 ispiluan nire izena
 idatzi duzunean,
 irratia piztu eta
 doinu hau entzutean,
 begietara begira
 hauxe nahi dizut esan:

Maite zaitut,
 maite-maite zaitut;
 pila, pila, pila patata tortilla!
 Maite zaitut.
 Maite-maite zaitut,
 ilargiraino eta buelta maite zaitut.

10	HASI 20:35 / AMAITU 20:55
----	---------------------------

IRAUPENA 00:20

LIMERICKA
 Juan Kruz Igerabide

Alejandra dama pinpirinak
 lepoa hain zuen arina
 ezen hiru jira egiten zizkion
 eta hala ere bigun geratzen zitzaion.
 Lepo bihurria zuen Alejandrak, alajaina!

11	HASI 20:56 / AMAITU 21:39
----	---------------------------

IRAUPENA 00:43

Joxan Ormazabal

Ileak apain

lleak apain-apain
 aurpegia zuri
 edertasuna dario
 erromatar emakumeari.
 Eskumuturrekoetan
 urreak diz-diz
 eraztunetan
 zilarrak dir-dir
 idunekoetan
 perlak ñir-ñir.
 Gozo-gozoa
 fin-fina
 emakume erromatarrari
 darion lurrina.
 Dis-dis, dis-dis
 distira
 aurpegi polit bat
 brontzezko ispiluari begira.

12 | HASI 21:40 / AMAITU 22:09

IRAUPENA 00:29

Aho-korapiloa

Gotzonek galtza beltzak jantzi ditu.
 Non dira Gotzonen galtza beltzak?
 Gotzonek soinean ditu galtza beltzak,
 Gotzonek galtza beltzak jantzi ditu!

13 | HASI 22:12 / AMAITU 24:10

IRAUPENA 01:58

Anjel Lertxundi, *Munduaren neurriak*
 BBK, 1998

Giltza-hots egundokoak entzun dira gaur gauean korridore luzeko ate gehie-
 netan. Orroon arabera, bi ziren borroeroak. Zabaltzen zuten ate bat, miatzen
 zuten gela, eta beste gela batera jotzen zuten gero. Izuz nengoen nire ateari
 begira. Halako batean, nire ondoko gelan sartzen sentitu ditut. Oihuka, birao-

ka, orroka hasi dira lehendabizi. Makila-soinuak entzun dira gero, zerbait puskatzen edo norbait jipoitzen ari balira bezala. Nire auzoak ez zuen txintik ere ateratzen. Etxeko laratza bezain isilik egon da erasoak iraun duen denboran. Ordu erdi luzea jo du erasoak. Halako batean, bi borrheroek alde egin dute. Norbait arrastaka zeramatela egingo nuke.

Gero isiltasun erabatekoa egin bada ere, begiraleen oihu eta orroak entzuten jarraitu dut gau osoan, otsoen auriak entzuten ari banintz baino izutuago.

Biharamunean, bolo-bolo ibili dira gauean gertatutakoari buruzko esamesak. Matxinada baten hotsak zabaldu dituzte borrheroek. Uste zabalduenaren arabera, ordea, erasotu duten nire auzoa kartoizko lurralde bat osatzen ari omen zen denen ezkutuan. Kartoizko bere mundu xume bat, bere burutazioetako geografiaren neurri osatutakoa, alegia. Borrheroek, horri konplota iritzirik, txiki-txiki egin omen dute, berebiziko bortizkeriaz eta inolako gupidarik gabe, nire auzoaren kartoizko mundu apala.

Bere horretan geratuko zen pasadizoa, baldin gaur eguerdian nire auzoak bere buruaz beste egin izan ez balu gelako sabaian lotutako kalamuzko soka lodi batez.

14 HASI 24:11 / AMAITU 25:59

IRAUPENA 01:48

Patxi Gallego, *Poxpoliñen lurriña (Xabinaitor-en balentriak)*
ELKAR, 2004

Poxpoliñen lurriñak gatibu

Berdin zait nolakoak diren, denen usaina det gustoko. Ile motxakin ta luzia-kin, flekilluakin edo gabe, melena edo mototsekin. Tirantedun kamiseta kitzikatzaileekin edota ehundura leuneko atorra dotore, bolantedun ala enkajedunekin. Baguette estiloko eskuzorroa daramatenak edota bandolera moduan, bular baten gainetik eta bestearen azpitik pasatzerakoan, titia bildu eta gorputzñoari bira ematen dioten motxila moderno horiek daramatzatenak. Bake-roekin edo txandalarekin, soinekoekin, gonekin edo mini-gonekin, edo gorputza goitik behera beroki luze batez estaltzen dutenak. Txankletekin edo belaunerainoko larruzko botekin. Betaurrekodunak ala lentilladunak. Moder-noak eta klasikoak, heteroak edo lesbianak, erretzaile zein "puretak". Kulerodunak eta tangadunak. Sudurluziak, muturluziak, denak ditut gustoko... Bueno, denak ez... Belarrimotxak ez. Baina, bestela, denak ditut gogoko. Denei darie

berezko euskal xarma, denei darie edertasuna, eta –tangaren haritxo fiña, gal-tzetan barna, ipur-masailetan murgiltzen den bezala– galtzaren aurrekaldetik beste hari fin hura darie, lurrin hari fiña, gogor eta estu lotzen nauen hari fiña.

Bai, hari horrek harrapaturik nauka, ez daukat ihesbiderik, euskal poxpo-liñaren lurrinak gatibu nauka, ezinbestean.

Ikusten duzuenez, ahoskerarena lan eremu izugarri zabala da, dibertimendua ere itzela. Lantzeko premia, berriz, latza. Baina zorte onekoak gu: ez dugu zertan ibili doinu berri bat asmatzen laborategiko lau pareten artean sartuta. Ahozko hizkuntza eta euskalkiak bizi-bizirik ditugu; eta ahozko arteak, berriz, osasuntsu.

Konturatuta egongo zarete zeinen hiztun onak diren bertso eskoletan ibilitakoak. Bertsolaritza desagertzeko zorian egon zen garai batean, baina begira orain zer indartsu dabilen. Bertsolariak aurretik doaz beren arloaren garapenean eta ikerkuntzan. Eta urte asko daramatzate bertsogintzaren aplikazioa egiten irakaskuntzan. Ahozko beste hiru arteek ere –antzerkia, ipuin kontalaritza eta kantagintza– bertsolaritzak bezainbat daukate emateko.

Teatroaren esparruan oraindik asko daukagu ikertzeko. Baina ezin ukatu sekulako erreminta dela hizkuntza hobetzeko ez ezik, gizaki bezala ere hazteko. Antzerkia egiten duen pertsona dibertitu egiten da; sormena lantzen du; ahozko komunikazioa esperimintatzen du; gorputz adierazpenean trebatzen da; literatura, historia eta artea ikasten ditu; hasten da irakurketa estimatzen, eta irakurle eta entzule kritikoa izaten; talde lanean jarduteko aukera dauka; adimen emozionala hobetzen du...

Gu prest gaude ikerlanean segitzeko eta elkarlanerako. Gidaritza eta plangintza serio bat, besterik ez dugu behar gure eskarmentua irakaskuntzara eramanez.

Eskerrik asko zuen arretagatik.